

Jaio eta kultur heziketa hasi

'Bularretik mintzora' kanpaina hasi du Galtzagorrik, umeengan txikitatik irakurtzeko zaletasuna sustatzeko

Aiert Iriarte. Donostia

Galtzagorri elkarteak Bularretik mintzora kanpaina hasi du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin, kanpaina sistematizatu bilakatzeko. Haur txikien guraso eta hezitzaileentzat da batez ere. Helburu nagusietako bat sei urte arteko haurrengan irakurtzeko ohitura sustatzea da guraso eta hezitzaileen bidez, haien ingurune naturalean: etxean, eskolan eta liburutegian.

Umearen inguruneak batzen dituen ekintzetako bat eskoletako motxilena da. Kanpainen parte hartuko duten eskoletan bat egongo da, eta astero ume batek hartuko du. Hasteko, liburutegira joango da, eta gustuko liburu bat aukeratuko du; ondoren, etxera eramango du, gurasoekin irakurtzeko; hurrengo egunean eskolara eramango du, eta bertan egongo da aste guztian, hurrengo liburua ekarri arte.

Webgune bat ere sortu nahi dute. Bertan gaiari loturiko informazio ugari aurkituko du bisitariak. Blog bat ere egongo da, iritziak zabaltzeko.

Egitasmoaren lehen pausoak Tolosan eman zituzten, iazko abendutik aurtengo apirila bitartean; protokoloaren lehen proba egin zuten bertan. Orain, hil honetatik 2009ko apirila bitarte, egitasmoaren esperimentuarekin jarraituko dute lau herritan: Iurretan, Ermuan, Oñatin eta Amurrión. Aurrerantzean, parte hartu nahi duten herrietara zabalduko dute kanpaina.

Formakuntza hitzaldi asko

Herri guztietan helduentzako formakuntza hitzaldiak egingo dituzte herriko liburutegietan: Juan Kruz Igerabide poetak poesiak hizkuntza afektiboaren oinarrian duen garrantzia azalduko du; Juan Karlos Alonso psikologoa haur literaturaz eta haurraren garapenean duen eraginaz ariko da; Pello Añorga helduentzat liburu bat nola kontatu, irakurri eta begiratu behar duten azaltzeaz arduratuko da. Azkenik, Itziar Zubizarreta mintzatuko zaie irakasleei, haur literatura eskolan nola sistematizatu erakusteko.

Horretaz gain, protokolo bat jarri dute martxan formakuntzarako eta materiala sortzeko. Herrietan behaketa sistema bat ezarriko dute, kanpainaren emaitzak jasotzeko eta izandako eragina aztertzeko. Ekimenaren sorburuan osasunaren kontzeptu orokor eta oso bat dago. Itziar Zubizarreta Galtzagorriko kidearen arabera haurtzaroko aldi horretan irakurri zaien umeek, irakurtzen lehenago ikasteaz gain, garapen kognitibo, intelektual eta afektibo hobea ere izaten dute. Arantza Arzamendi Jaurlaritzako Kultura Ondarearen zuzendariak azaldu du egitasmoaren helburua gizarteari irakurtzearen garrantziaz ohartaraztea eta haurraren jaio bezain pronto irakurketa sustatu behar dela erakustea dela. Egitasmo hau berria da Euskal Herrian; 1992an Erresuma Batuan sortu zen gisa honetako lehen ekimena, Bookstart izenarekin. Urteekin hainbat herrialdetara zabaldu da. Kolonbiako Leer en familia eta Kataluniako ekimen berdintsu bat hartu ditu Galtzagorrik erreferentzia moduan.

'Bularretik mintzora' CD-liburuxka, poema, hitz joko eta ipuinen bilduma
Bularretik mintzora CD-liburuxka ere kaleratu du Galtzagorri elkarteak; Itziar
Zubizarretak zuzendu du lana, Elena Odriozolak ilustratu eta Aurelio Edlerrek
musikatu. Sei urte bitarteko haurren guraso eta hezitzaileengan pentsatuta dago
batez ere. Haurrengan irakurketarekin lotura afektiboa sortzea du helburu.

Miren Agur Meabe, Juan Kruz Igerabide, Pello Añorga, Lourdes Etxebarria eta
Itziar Zubizarretak jarri dituzte ahotsak, Iñaki Telleriaren perkusioa eta Ohiane
Igerabideren harpa doinuen laguntzarekin; sehaska kanta, ipuin, magaleko jolas,
esku jolas eta hitz jolasek osatzen dute grabaketa. Soinu erritmikoekin joko
egiten du, joko mimikoarekin laguntzeko, hori baita haurren jatorrizko mintzaira;
hala, hurbileko mundua ezagutarazten zaie. Argi geratzen da euskara sehaska
kantetan eta hitz jokoetan aberatsa dela.